

2022 / 2023 ikasturtea

Erditze-prozesuan emakumea uretan murgiltzeak minaren maneian duen eragina

Egilea: Edurne Estandia Ibaibarriaga

Laburpena

Sarrera: azken urteetan, erditze esperientzia positiboa bilatzeko bidean, arreta handia jarri da erditzean mina arintzearen garrantzian. Ura metodo ez-farmakologiko bezala gero eta gehiago erabiltzen da. Lortu nahi diren helburuen artean mina arintzea eta erditzean emakumearen autonomia eta ongizatea areagotzeko analgesia epiduralaren ordeko neurriak aurkitzen dira. Hala ere, dilatazio-prozesuan eraginkortasuna eta segurtasuna frogatuta daudela dirudien arren, kezka agertzen da kanporatze-fasearen erabilerarako.

Helburua: lanaren helburu nagusia da, erditze-prozesuan dagoen emakumea uretan murgiltzeak minaren maneian duen eraginkortasuna aztertzea eta ezagutzea.

Metodologia: lan hau berrikuspen bibliografiko bat da. PIO egitura zehaztu ondoren, bilaketa bibliografikoa egiteko deskriptoreak aukeratu dira, eta bilaketa datu-base nahiz web-orrialdeetan eta emagintzan oinarriturik dagoen aldizkarian egin da. Irakurketa kritikoari esker, artikuluen ebaluazioa gauzatu da CASPe (Critical Appraisal Skills Programme Español) txantiloien bidez eta Haynes piramideaz baliatuz dokumentuen ebidentzia maila ziurtatu da.

Emaitzak: uretan erditzeak erditze-prozesuaren aurrerabidea errazten du. Gainera, flotagarritasun-efektua dela eta mugikortasuna errazten da, horrek minaren pertzepzioa hobetu eta erditze-lanaren aurrerapena arindu dezake. Horrez gain, dilatazio-aldian bereziki, ur beroaren erabilerak analgesiaren erabilera murrizten du. Erditze-prozesuan zehar opioideen erabilera eta narkotikoen beharra murrizten da uraren erabilerarekin.

Eztabaida: nahiz eta emaitza gehienak adierazten duten erditze-prozesuan uretan murgiltzeak mina gutxitzen duela, badira ikerketak minaren murrizketarik gertatu ez dela aztertu dutenak. Gainera ospitaleetan analgesiako erabilera gutxitzen dela frogatu bada ere, komunitatean oinarritutako uretako erditzeek nahitaez izango lituzkete analgesikoen modalitate horiek eskuratzeko erronkak.

Ondorioak: uretan murgilduta tenperatura doitzeko ahalmenak eta mugitzeko erretasunak emakumeen estresa gutxitzen duenez minaren murrizketa gertatzen da, erditze fisiologikoa bermatuz, kontrako gertaera baten arriskua handitu gabe eta epiduralak eta opioideek sartutako arriskurik gabe. Gehiago aztertu beharko litzateke uretan murgilduta hirugarren fasea gertatzearen eta haurrondokoa botatzearen inguruan.

Hitz gakoak: uretako erditzea, uretako dilatazioa, murgilketa, hidroterapia, minaren maneia.

Edukiaren aurkibidea

1. Sarrera.....	1
2. Helburuak	4
3. Metodologia.....	4
3.1 Bilaketaren estrategia.....	4
3.2 Bilaketaren emaitzak.....	6
4. Emaitzak	7
4.1 Minaren maneia	7
4.2 Erditze-prozesuan uretan murgiltzen den emakumeari eman beharreko emagin edo erizaintza-zainketak	8
4.3 Erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak eta arriskuak	12
4.4 Gogobetetzea	14
5. Eztabaida	14
6. Ondorioak.....	17
7. Bibliografia.....	18
8. Eranskinak	23
1. Eranskina: Datu-baseetan egindako bilaketa bibliografikoaren emaitzak	23
2. Eranskina: Matronas Profesión aldizkarian lortutako artikuluen informazioa.	26
3. Eranskina: Datu-baseetan lortutako artikuluen informazioa.....	27
4. Eranskina: Datu-baseetatik lortutako artikuluen irakurketa kritikoa. Critical Appraisal Skills Programme Español (CASPe).....	36

Taulen aurkibidea

1. Taula: PIO egituraren oinarrituz, artikuluen bilaketa egiteko erabilitako deskriptoreak eta hitz gakoak.....	5
2. Taula: Erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak	12
3. Taula: Erditze-prozesua uretan gertatzearen arriskuak	13

Irudien aurkibidea

1. Irudia: Haynes-en piramidea.	7
--------------------------------------	---

Laburduren hiztegia

- FAME: Espainiako Emaginen Elkarteen Federazioa.
- OME: Osasunaren Munduko Erakundea.
- PIO: pazientea edo arazoa (P), interbentzioa (I) eta emaitzak (O).
- MeSH: Medical Subject Headings.
- DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud.
- BVS: Biblioteca Virtual en Salud.
- ACOG: The American College of Obstetricians and Gynecologists.
- CASPe: Critical Appraisal Skills Programme Español.
- HT: hidroterapia-taldea.
- KT: kontrol-taldea.
- EVA: Minaren Ikusmen-Eskala Analogikoa.
- RCTG: erregistro kardiopografikoa.
- ZIU: Zainketa Intentsiboetako Unitatea.

1. Sarrera

Erditzea, haurdunaldiaren amaieran, jaioberri baten jaiotza gertatu eta plazenta kanporatzearekin amaitzen den fenomeno da. Prozesu horretan aldi hauek bereizten dira: lehenik eta behin, prodromoak, erditzearen hasierako sintomak; ondoren bigarren aldia, hau da, dilatazio-aldia; gero, hirugarren aldia, egozpen-fasea, fetuaren irteera osoarekin amaitzen dena; eta azkenik, haurrondokoa botatzea (1). Erditze normala, Espainiako Emaginen Elkartearen Federazioak (FAME) emakumeak haurdunaldia amaitzeko erabiltzen duen prozesu fisiologiko bakarra bezala definitzen du eta faktore psikologikoak eta soziokulturalak inplikatzen dira. Hasiara espontaneo da, konplikaziorik gabe garatu eta jaiotzarekin amaitzen da. Gainera, laguntza integrala eta errespetuzkoa baino ez dakar berekin (2).

Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) (3) onartzen du erditze eta jaiotza bakoitza desberdina dela, baina prozesu fisiologiko normalizat hartzen dela, eta konplikaziorik gabe gara daitekeela emakume eta jaioberri gehienentzat. Hala ere, haurdun dauden emakume osasuntsu askok gutxienez esku-hartze kliniko bat izaten dute erditzean eta jaiotzan. OMEk (3) dioenez emakume askok erditze naturala nahi dute, eta nahiago dute bere gorputzari kasu egin, haurra ebakuntza medikorik gabe erditu ahal izateko. Haatik, interbentzio medikoa nahi den edo behar den kasuetan, garrantzitsua da emakumeak erabakiak hartzerakoan kontutan izatea, erditzearen esperientzia positiboa dela ziurtatzeko jasoko duten laguntzari dagokionez. Era berean, erditze esperientzia positiboa, emakumearen aurretiko sinesmen eta itxaropen pertsonal eta soziokulturalak betetzen edo gainditzen dituen esperientzia da. Horrek esan nahi du, haur osasuntsu bat erditu behar dela, ikuspegi klinikotik eta psikologikotik giro seguruan, eta laguntza praktikoa eta emozional etengabea izan behar duela, hau da, jaiotzan lagun izan behar duela, eta langile atseginen eta gaitasun tekniko egokien laguntza izan behar duela (4).

Guzti hori kontutan izanik, azken urteotan, erditze esperientzia positiboa bilatzeko bidean, arreta handia jarri da erditzean mina arintzearen garrantzian (5). Ehun-kalte erreal edo potentzialarekin lotutako esperientzia sensorial eta emozional desatsegina bezala definitzen da mina zientifikoki. Erditze-minari dagokionez, bi elementu bereizten dira, erraietakoa eta somatikoa. Alde batetik, erraietakoa, erditzearen lehen etapan gertatzen da, eta umetoki-lepoan eragiten den tentsioarekin lotuta dago, eta horrek haren dilatazioa eragiten du. Hori mina bezala sentitzen du erditzaileak. Beste alde batetik, min somatikoa lehenengo etaparen amaieran agertzen da, eta bigarren etapara arte ere iraun dezake;

alabaina, mina desberdina izango da erditzearen hiru etapetako bakoitzean. Lehenengo fasean, mina, umetokiko muskulaturak uzkurduretan eta dilatazio zerbikalean eragindako distentsio eta iskemiak eragiten du, eta T10-L1 zuntz nerbioen bidez transmititzen da. Lauso da eta lokalizatzen zaila, eta gerrialdeari, abdomeneko paretari, gandor iliakoei, izterrei edo gluteoei lotuta egon daiteke. Bigarren fasean ordea, mina baginako zuntzen, perineoaren eta zoru pelbikoaren distentsioak eragiten du; nerbio pudendoek transmititzen dute, eta bizkarrezur-bidean sartzen da S2-S4 bidez. Erraietako mina ez bezala, mina nozizeptoreak estimulatu diren eremuan dago. Azkenik, hirugarren fasean, mina baginako zuntzen estimulazioaren ondorio da, erditzeak eragindako presioaren ondorioz (2,6). Horrez gain, esan beharra dago, minaren larritasunean eragina duten faktoreak ere badaudela, horien artean hauek desberdindu daitezke: pertsonaren minaren atalasea, erditze-lanaren aurrerapen-maila, haurraren tamaina, amaren osasun-egoera orokorra, pelbisaren dimentsioak, erditzean duen posizioa, estresa eta faktore mentalak antzeman daitezkeela (6). Emakume askorentzat erditzearen mina larria da, eta gehienek nolabait arintzea eskatzen dute. Era berean, muturreko minak trauma psikologikoak eragin ditzake emakume batzuentzat; beste batzuentzat berriz, analgesiaren albo-ondorio desagokiak kaltegarriak izan daitezke jaiotzaren esperientziarentzat. Beraz, analgesia-nahiak eta metodoaren aukeraketak faktore askoren eragina dute, besteak beste, emakumearen itxaropenak, erditzearen konplexutasuna eta minaren intentsitatea (5).

Aurretik esan bezala, minaren esperientzia subjektiboa bada ere, eta hainbat faktoreren eragina badu ere, mina ez arintzea eta laguntza emateko erditze-arreta falta erditze-esperientzia negatiboekin lotzen dira. Aitzitik, emakumeen beharrak asetzeko une egokian mina behar bezala arintzea amaren arreta errespetuzkoaren bereizgarria da eta erditze positiboko esperientziak erraztu ditzake, baita mina farmakologikoki arindu ezean ere (7).

Gaur egun, erditze-prozesuan mina arintzeko uraren erabilera gero eta handiagoa da, baina baliabide terapeutiko gisa uretan murgiltzea ez da teknika berria (5,8). Uretan murgiltzea da bularralderaino erabat urperatzea ahalbidetzen duen sakonera duen bainuontzi batean urperatzea (7). Badira frogak esateko txinatarrek, egiptoarrek, japoniarrek eta asiriarrek, baita greziarrek eta erromatarrek ere, uretan murgiltzea erabiltzen zutela osasun fisiko eta psikologiko txarrerako tratamendu gisa (8). Beraz, uraren erabilera terapeutikoa konstantea da gizateriaren historian zehar eta urperatzea edo

ur beroaren aplikazioa arrakastaz erabili dira prozesu mingarri askotan. 70eko hamarkadaren amaieran esaterako, erditzeetarako bainuontzia edo igerilekua sartu zen Pithivierseko Ospitalean, Frantzian (5). Gainera, 1995ean, uretan erditzeari buruzko nazioarteko lehen konferentzia egin zen Londresen, eta, ondoren, ikerketa-ekitaldi asko eta ondorengo nazioarteko konferentziak egin ziren (8).

Halaber, desberdindu behar da emakumea lehen fasean ur berotan murgiltzea (dilatazioan mina arintzeko metodo gisa) eta emakumea murgilduta dagoenean jaiotza uretan gertatzea (5). Erditze lana uretan egitea ur epelean murgiltzea da, erditze-lanaren edozein etapatan, jaioberriaren jaiotza barne hartu gabe. Uretan erditzean ordea, erditze-lanaren bigarren etapa arte ur epelean murgiltzea da. Horren ondorioz, jaioberri bat ur azpian jaiotzen da, plazenta non jaiotzen den alde batera utzita (9).

Bestalde, uretan erditzearen prebalentzia aztertzen duten ikerketak urriak badira ere, literaturak iradokitzen du kontinente guztietan gertatzen dela eta beharbada, ohikoagoa dela diru-sarrera handiko herrialdeetan (10). Praktika hori gehiago erabiltzen da erditze-inguruneetan (jaiotza-etxeak, etxean jaiotzea), ospitale-unitatean baino. Adibidez, Erresuma Batuan, 2015ean, erditze guztien % 9 inguru uretan izan ziren, eta uretan jaiotzen diren zentroetan artatzen diren erditzeen % 57 ere izan ziren. Aitzitik, Australian, erditze guztien % 1,7 uretan egiten dira. Estatu Batuetan praktika horren prebalentzia zalantzazkoa da, datuak ez baitira jaiotza-ziurtagirietan erregistratzen (5). Espainiako Osasun Sistema Nazionalari dagokionez, ospitaleen artean dagoen uretan murgiltzeko eskaintza aldakorra da. Bainuontziak dituzten ospitale guztiek erditzearen lehen fasean eskaintzen dituzte (dilatazioa), % 32k kanporatze-fasean ere erabiltzen dute, eta % 15ek placentaren erditzean (11).

Besteak beste, uretan murgiltzea mina arintzeko metodo ez-farmakologiko gisa erabiltzen ari da eta lortu nahi diren helburuak mina arintzea eta erditzean emakumearen autonomia eta ongizatea areagotzeko analgesia epiduralaren ordeko neurriak bilatzea dira. Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleen artean uretan murgiltzeko eskaintza alda daiteke. Espainiako 13 autonomia-erkidegotako 46 ospitalek bainuontziak dituzte erditzeen eremuan. Uretan murgiltzearen eskaintzari dagokionez, % 20k 10 urte baino gehiagoko esperientzia dute, % 45ek 5 eta 10 urte arteko esperientzia, eta % 35ek erditzean uretan 5 urte baino gutxiagoko esperientzia. Hala ere, dilatazio-prozesuan eraginkortasuna eta segurtasuna frogatuta daudela dirudien arren, kezka agertzen da kanporatze-fasearen erabilerarako, batez ere jaioberrien segurtasunari dagokionez (8, 11).

2. Helburuak

Lan honen helburu nagusia da:

- Erditze-prozesuan dagoen emakumea uretan murgiltzeak minaren maneiaren duen eraginkortasuna aztertzea eta ezagutzea.

Helburu nagusi hori lortzeko bigarren mailako beste hainbat helburu planteatu dira:

- Emakumea uretan murgiltzean eman beharreko emagin edo erizaintza-zainketen berri izatea.
- Erditze-prozesua uretan gertatzeak emakume haurdunetan eta jaioberrietan dituen onurak eta arriskuak identifikatzea.
- Emakumearen gogobetetzea ezagutzea, bere erditze-prozesuari dagokionez.

3. Metodologia

3.1 Bilaketaren estrategia

Ezarritako helburuak garatzeko, erabili den metodologia berrikuspen narratiboa izan da. Horretarako, bilaketa bibliografikoa burutu da datu base, web-orri eta aldizkari desberdinetan. Bilaketa ahalik eta zehatz eta eraginkorren egiteko helburuarekin, PIO egitura formulatu da, ikerketa-galderatik abiatuz: erditze-prozesuan, uretan murgiltzeak emakumearen minaren maneiu eraginkorra lortzen laguntzen al du?

- **Patient** (pazientea, taldea): erditze-prozesuan dauden emakumeak
- **Intervention** (esku hartzea): uretan murgiltzea
- **Outcome** (emaitzak): minaren maneiaren eraginkortasuna aztertzea eta ezagutzea.

Bilaketa egiteko PIO galderatik abiatuz, DeCS (Descriptores en Ciencias de la Salud) eta MeSH (Medical Subject Headings) erako deskriptoreak eta terminología librea erabili dira.

1. Taula: PIO egituran oinarrituz, artikuluen bilaketa egiteko erabilitako deskriptoreak eta hitz gakoak.

			Terminologia librea		
	MESH	DECS	Ingelesez	Gazteleraz	Euskeraz
P	<ul style="list-style-type: none"> • Pregnant Women 	<ul style="list-style-type: none"> • Mujeres Embarazadas 	<ul style="list-style-type: none"> • Parturient* • Parturient woman • Women 	<ul style="list-style-type: none"> • Parturienta • Mujer • Embarazada 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurdun dagoen emakumea
I	<ul style="list-style-type: none"> • Natural childbirth • Immersion • Hydrotherapy • Parturition 	<ul style="list-style-type: none"> • Parto Normal • Inmersión • Hidroterapia • Parto 	<ul style="list-style-type: none"> • “Water birth**” 	<ul style="list-style-type: none"> • Inmersion en el agua 	<ul style="list-style-type: none"> • Uretan murgiltzea
O	<ul style="list-style-type: none"> • Pain management • Labor Pain 	<ul style="list-style-type: none"> • Manejo del Dolor • Dolor de parto 	<ul style="list-style-type: none"> • Pain • Benefit* • Effectiveness 	<ul style="list-style-type: none"> • Dolor • Bienestar 	<ul style="list-style-type: none"> • Minaren maneia • Mina • Ongizatea

Iturria: propioa

Bilaketa bibliografikorako, osasun zientzietan oinarritutako ondorengo meta-bilatzaile eta datu-baseak erabili dira: PubMed, Biblioteca Virtual en Salud (BVS), Cochrane Plus, Scielo eta Dialnet. Horretarako, deskriptoreak konbinatu dira "AND" eta "OR" operadore boolearren laguntzaz, bilaketa estrategiko bat osatuz (ikus 1. Eranskina).

Bilaketa estrategikoak egiterakoan, jarraian azaldutako iragazkiak erabili dira:

- Argitalpen datari dagokienez, azken 5 eta 10 urteetako dokumentuak erabili dira.
- Hizkuntza aldetik, ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko dokumentuei eman zaie lehentasuna.

Bilaketa egin ostean, lanean erabiliko diren dokumentuak aukeratzeko barneratze- eta kanporatze-irizpideak finkatu dira.

Barneratze-irizpideak:

- Emakumearen erditze-prozesuko minaren maneirako uretan murgiltzean zentratzen diren artikulak.

- Uretan murgiltzeak emakumeentzat eta haien jaioberrientzat dituen ondorio onuragarriak edozein arriskurekin batera aztertzen dituzten artikuluak.
- Uraren erabilerak amen gogobetetasunean duen eragina aztertzen dituzten artikuluak.

Kanporatze-irizpideak:

- Uretan murgiltzearekin zer ikusirik ez daukaten metodo ez farmakologikoak.
- Ura perineoan bakarrik eta zuzenean aplikatzean zentratzen diren artikuluak.
- Profesionalen etikaren inguruko artikuluak.

Datu-baseetan bilaketak egiteaz gain, jarraian agertzen diren web-orrialdeak ere kontsultatu dira:

- Espainiako Emaginen Elkarten Federazioa (FAME).
- Osasunaren Munduko erakundea (OME).
- The American College of Obstetricians and Gynecologists (ACOG).


Bestalde, emagintzan oinarriturik dagoen Matronas Profesión izeneko osasun aldizkaria ere kontsultatu da (ikus 2. Eranskina).

3.2 Bilaketaren emaitzak

Bilaketa estrategia hori aurrera eramanda 23 izan dira lana burutzeko datu-baseetatik aukeratutako artikuluak (ikus 3. Eranskina).

Aurretik aipatutako datu-baseetan bilaketak egin, iragazkiak eta barneratze-irizpideak aplikatu eta dokumentuen izenburuak nahiz laburpenak irakurri dira, gaiarekin zerikusia duten eta ebidentzian oinarrituta dauden dokumentuekin soilik geratzeko. Gainera, Espainiako Irakurketa Kritikoko Trebetasunen Programa, Critical Appraisal Skills Programme Español (CASPe) gida tresna erabiliz irakurketa kritikoa burutu da (ikus 4. Eranskina).

Horietaz gain, web-orrialdeetatik hiru dokumentu, praktika klinikorako gida bi eta interneteko aldizkarietatik beste bi argitalpen erabili dira bilaketa-estrategiaren bitartez lortutako informazioa osatzeko. Beraz, lana burutzeko 30 iturri erabili dira. Gainera, lortutako dokumentuen ebidentzia-maila zehazteko, Haynes-ek argitaratutako piramidea erabili da (ikus 1. irudia), mota eta kalitate ezberdineko dokumentuak eskuratuz.



1. Irudia: Haynes-en piramidean. Iturria: Haynes RB. Of studies, syntheses, synopses, summaries, and systems: the "5S" evolution of information services for evidence-based healthcare decisions. *Evid Based Med.* 2006;11(6):162-4. doi:10.1136/ebm.11.6.162-a.

*Oharra: Piramidean ageri diren zenbakiak bibliografiaren dokumentuekin bat datozen.

4. Emaizak

Hurrengo orrialdean azalduko da lehenik eta behin, erditze-prozesuan uretan murgiltzeak minaren maneian duen eragina, ondoren, erditze-faseetan uretan murgilduta dauden emakumeei eman behar zaizkien emagin eta erizaintza-zainketak, gero, urari esker lortzen diren onurak eta gerta daitezkeen arriskuak eta azkenik, emakumeen gogobetetze-maila.

4.1 Minaren maneia

Emaitzen arabera, uretan erditzeak erditze-prozesuaren aurrerabidea errazten du. Gainera, estresa eta katekolaminen ekoizpena gutxitzen dira eta horrek minaren pertzepzioa hobetu eta erditze-lanaren aurrerapena arindu dezake (6,12-16).

Alde batetik, presio hidrostatikoa kontutan izanik, abdomen barneko presioa handiagoa da eta horrek ama izango denari arnasa hartzea eta jarrera aldatzea errazten dio. Bestetik, urari esker, ehun pelbikoak malguagoak eta elastikoagoak dira, eta horrek murriztu egiten du uzkurduetan sentitzen den mina eta erditzean erabiltzen diren ebakuntza instrumentalen kopurua (6). Gainera, flotagarritasun-efektua dela eta, mugimendua erraztu eta oinazearen murrizketa gertatzen da, uzkurduetan eta uzkurduen artean. Horrez gain, uretan egoten inguruko tenperatura doitzeko egokiera ematen duenez, bulba eta perineo inguruan ur epel eta lasaigarria lortzeko aukera ematen du eta honek minaren pertzepzioa gutxitzen laguntzen du. Halaber, uretan erditzea leunago izaten da eta

umetoki-lepoa errazago zabaltzen da, beraz, urak erditze aktiboko lanean eta erditzearen bigarren eta hirugarren etapetan erditze-prozesua hobetzen laguntzen du (10).

Mallen-Perez et al. ek (17) egindako lanean aztertu zen hidroterapia erabiltzeak mina gutxitzen zuela bai erditze-lanean eta baita ere kanporatzean, uretan erditzea egiten zuten emakumeen kasuan. Hidroterapia aplikatu eta 30 eta 90 minutura, minaren batez bestekoa txikiagoa izan zen hidroterapia-taldean (HT) kontrol-taldean (KT) baino. Gainera, kanporatzean, mina txikiagoa izan zen uretan erditu zirenen artean. Aitzitik, badaude ikerketak adibidez, Czech et al. ek (6) landutakoa, aztertu zena uretan murgiltzean egindako lanak ez zuela zerikusirik minaren intentsitatearen murrizketarekin.

Horrez gain, emaitza onak aurkitu dira analgesikoen erabileraren murrizketan, uretan erditu duten emakumeek erlaxazioa areagotu dutelako. Alde batetik, metodo honek kontrol pertsonal handiagoa izatea ahalbidetu du (18). Bestetik, dilatazio-aldian bereziki, ur beroaren erabilerak analgesiaren erabilera murrizten du (2,10,16,19). Hautala et al. ek (20) uretako erditze-taldeko amei egindako ikerketan, kontrol-taldekoek, hau da uretan erditutakoek, minarentzat eskatutako sendagai-kopuruaren laurden bat baino ez zuten behar izan. Horrez gain, erditze-prozesuan zehar opioideen erabilera (21) eta narkotikoen beharra murrizten da uraren erabilerarekin. Azkenik, uretan murgildura erditzeko lanaren uzkurdurak indartzeko oxitozina beharra txikitzen da (22).

4.2 Erditze-prozesuan uretan murgiltzen den emakumeari eman beharreko emagin edo erizaintza-zainketak

Erditzeko mina da haurdun dauden emakumeen kezka-arrazoi nagusietako bat. Mina, ongizatea eta amaren gogobetetasuna arintzea erizaintzako kode deontologikoaren eta beraz, erizainen gaitasunen parte da. Hori dela eta, osasun-arloko profesionalak mina kudeatzeko ordezko metodoak eskaintzeko gai izan behar dira. Mina arintzeko teknika gisa bainuontzia aukeratu ondoren, emaginak¹ bere lehentasunen eta erditze-planaren berri emango die emakumeari eta aurkeztu badu, bikotekideari (2, 23)

Emakumearen nahiak errespetzea saiatzen da, ahal den guztietan. Erditu aurretik haurdunaldian emakumeei informazioa ematea gomendagarria da, aukera hori kontuan hartzeko denbora izan dezaten. Ur beroa mina arintzeko nahikoa ez bada ordea, banakako

¹ Emagina hitza erabili da, bilatu den informazioan osasun-profesional honi egin zaiolako kasu gehienetan erreferentzia, baina erizaina edo emagina izan daiteke.

balorazioa egin eta gero, emakumeak beste metodo batzuk konbinatu edo erabil ditzake kasuak-kasu (23).

Segidan, emaginak erditze-lanerako eta jaiotzarako uretan murgiltzeak dakartzan arriskuei eta onurei buruz emakumeak duen ulermena ebaluatuko du. Urperatu aurretik, ziurtatuko da emakumeak hautagarritasun-irizpideak betetzen dituela (9).

Hautagarritasun-irizpideak hauek dira (9, 24):

- Presentazio zefalikoa izatea.
- Haurra bakarra izatea.
- 37 asteko haurdunaldia edo gehiagokoa izatea.
- Dilatazioa, erditze aktiboko lana (4 cm) izatea.
- Poltsa apurtu izanak ez ohi du prozesua zailtzen.

Baldintza hauek betetzen direnean ordea, ez da gomendatzen erditze prozesua uretan gertatzea (24):

- Amaren kausa denean:
 - Arrisku handiko haurdunaldia izatea.
 - Kontrolatu gabeko haurdunaldia izatea.
 - Haurduna adingabea izatea.
 - Haurdunaldiaren kontrol eskasa (< 5 bisita) izatea.
 - Intsulinarik gabeko haurdunaldiko diabetesa izatea.
 - I. mailako kardiopatiak izatea.
 - Serologia ezezagunak izatea.
 - Multiparitatea izatea (>3 erditze).
 - Sukarra edo amaren infekzioaren susmoa izatea.
 - Genitalen herpes aktiboa edo sexu-transmisioko gaixotasunen susmoa izatea.
 - Sorbalda distoziaren aurrekaria izatea.
 - Baginako odoljario aktiboa izatea.
 - Oxitozina erabiltzea.
 - Oxido nitrosoa erabiltzea.
 - Laguntzailerik ez izatea.
 - Anestesia epidurala edo intradurala erabiltzea.

- Azken 6 orduetan emandako narkotikoak erabiltzea.
- Fetuaren kausa:
 - Erregistro kardiopografiko (RCTG) atipikoa edo patologikoa izatea.
 - Likido amniotiko mekoniala izatea.
 - Demakrosomaren susmoa izatea (fetuaren pisu estimatua > 4 kg).
 - Fetuaren ezohiko aurkezpen ez-zefalikoa izatea erditzean.

Horrez gain, bainuontziaren baldintza seguruak mantentzen dira, bainuontzia iturriko ur korrontearekin bete behar da, gehigarririk gabe (adibidez, gatz, olio esentzialak, desinfektatzaileak) eta uraren tenperaturaren orduko ebaluazioa kontutan izanik. Uraren tenperaturak ezin du inoiz 37,7°C gainditu, eta tenperatura hotzagoetara egokitu daiteke, emakumearen lehentasunen arabera (9).

Aitzitik, badira kasuak, non emakumeak uretan murgiltzean ez diren gustura sentitzen, horregatik, haurdunari jakinarazi behar zaio bainuontzitik irten daitekeela nahi duenean (23). Emakumea bainuontzitik sartzen eta irteten den aldiak erregistratu behar dira. Gainera, emakumea trebatu behar da bainuontzira sartzean eta handik irtetean gorputz-mekanika egokia erabil dezan, eta langileen edo laguntzaileen sorospenearekin bakarrik egin dezan. Bestalde, ama edo fetuaren izaeran konplikazioak edo aldaketak gertatzen badira eta horiek ebaluazio edo tratamendu gehigarria eskatzen badute bainuontzitik kanpo, informazio hori familiarekin partekatuko da. Hala badagokio, emakumea segurtasunez bainuontzitik irtetea errazteko, langile osagarrien eskuragarritasuna ziurtatu behar da, bainuontzitik ohera irteteko bide seguru bat ezarriz eta mantenduz. Beraz, ziurtatu behar da arrisku potentzialik ez dagoela (adibidez, zoru bustia, ekipoa...) (9,13).

Lehenik eta behin, uretara sartu aurretik, emakumeari pixa egiten saiatzeko esango zaio. Ondoren, uretan sartzean, giro lasaia, beroa eta argi motelekoa sustatu behar da. Gainera, ziurtatu behar da gelako giro-tenperatura eroso dela emakumearentzat; hotza eta gehiegizko beroa saihestuz. Era berean, bainuontzian dagoen bitartean, haurduna ura edatera animatuko da, deshidratazioa saihesteko. Horrez gain, uretatik kanpo balego bezala egingo da fetuaren bihotz-maiztasunaren eta umetoki-dinamikaren monitorizazioa. Telemetria-ekipoaren transduktoreak eta hari gabeko monitore fetal eramangarriaren terminala uretan murgildu daitezke. Erabili ondoren, erditzeko bainuontzia eta ekipoak garbitu eta desinfektatu beharko dira. Instalazioek protokolo zorrotzak ezarri behar dituzte bainuontzia eta igerilekua mantendu eta garbitzeko;

infekzioak kontrolatzeko prozedurak erabiliz. Horretarako, profesionalek neurri eta jarraibide unibertsalak hartu behar dituzte infekzioak kontrolatzeko (9, 13, 23).

Erditzearen bigarren etapan ere, eroso sentitzeko emakumeak edozein posizio hauta dezake bainuontzian emaginak segurutzat hartzen duen bitartean. Osasuneko profesionalak posizioan doikuntzak eska ditzake aurrerapena ikusteko, prozesua errazteko edo amaren eta fetuaren ongizatearen ebaluazioa mantentzeko. Ur-tenperaturari dagokionez, bigarren etapa honetan, ezin du inoiz $37,7^{\circ}\text{C}$ gainditu, eta emakumearen lehentasunen arabera doitu daiteke $36,1^{\circ}\text{C}$ -tik $37,7^{\circ}\text{C}$ -ra bitarteko tarte estuan. Horrez gain, amaren eta fetuaren ongizatea ohiko erditze baterako izango litzatekeen bezala ebaluatu eta dokumentatu behar da. Fetuaren bihotz-maiztasuna eta uzkuradura-eredua arreta-gomendio estandarren arabera ebaluatzen dira, oro har 5-15 minutuero (9).

Jaioberriaren jaiotzari dagokionez, emakumeari bat-bateko bultzada fisiologikoa erabiltzen lagundu behar zaio. Arreta medikoaren hornitzaileak esku hartzerik gabeko posizioa edo esku orekatuak erabil ditzake erditzea errazteko, esfortzu kontrolatuen, espontaneoen eta bultzada-esfortzuen bidez. Jaiotza-ordua jaioberriaren gorputz osoa emakumearengandik kanpo dagoenean erregistratuko da. Jaioberriak erabat urpean jaiotzan, airearekiko esposiziorik gabe, aurpegia leunki eta zuzenean azalera eramaten da. Jaioberriaren burua ez da ur azpian berriro murgildu behar, ur azalera atera ondoren. Ordea, emakumea uretatik altxatu eta umekiaren burua airean jartzen badu, uretatik kanpo dagoen beste pertsona baten laguntza jaso behar du, jaioberria berriro urperatzean ur azpian arnasarik gabe geratzeko arriskua saihesteko (9).

Jaio ondoren, jaioberria zuzenean eta emeki-emeki azalera ekartzen lagundu behar da (5 eta 10 segundo artean), zilbor-hesteko tentsioa murrizteko eta urradura-aukera murrizteko. Gainera, jaioberriaren beroa mantendu behar da, emakumearekin azala azalarekin ukituz eta jaioberriaren beheko gorputz-adarrak, sabelaldea eta bularraldea urperatuz. Ondoren, jaioberriaren burua lehortuko da bero-galera murrizteko. Apgarren puntuazioak jaio eta minutu batera eta bost minutura egin behar dira (9).

Horrez gain, erditze-lanaren hirugarren etaparen maneiak arreta-estandarren arabera jokatu behar du, erditze osteko odoljario-arriskua murrizteko. Erditze osteko odoljario-arrisku handiena duten emakumeen kasuan, hirugarren etapa uretatik kanpo maneiatu behar da, odol-galeraren maneiua eta kuantifikazio zehatza babesteko. Arreta medikoko hornitzaileek uraren iluntasuna edo dekolorazioa gertatzen dela edo odoljarioa areagotzen

dela sumatzen badute, emakumea bainuontzitik atera behar da berehala, ebaluazioarekin eta tratamenduarekin jarraitzeko. Gainera, erditze-prozesuko hirugarren etapan eta ume-ondokoa botatzerako garaian, zenbatutako edo estimatutako odol-galera historia klinikoan erregistratu behar da. Emakumearen eta jaioberriaren jaiosteko behaketak erakunde-politiken arabera egin behar dira. Era berean, erditze osteko ebaluazio gehienak emakumearekin azalez azal kontaktuan dagoen bitartean egin daitezke bainuontzian (9).

4.3 Erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak eta arriskuak

Erditze-lanean uretan murgiltzea zenbait onurarekin lotu da. Dilatazio-prozesuan eraginkortasuna eta segurtasuna frogatuta daudela dirudien arren, kezka agertzen da jaioberrien eta amen segurtasunari dagokionez kanporatze-fasean erabiltzeko (16). Hauek dira erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak eta arriskuak:

2. Taula: Erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak.

Erditze-prozesua uretan gertatzearen onurak
Emakumearen mugikortasun handiagoa (9,16).
Episiotomia-tasa txikiagoak (9,21,25).
Hirugarren eta laugarren mailako zartadura perinealak izateko probabilitatea murriztea (9, 25, 26).
Amagandiko edoskitzearen hasiera-tasa handiagoa erditze-gelan (9,26).
Distozia-tasaren murrizketa (25). <ul style="list-style-type: none"> Hala ere, Burns et al. ek (21) eta Reviriego Rodrigo et al. ek (11) egindako azterketan sorbalden distozian ez zen alderik egon uretan murgiltzearen eta arreta estandarraren artean.
Jaioberrien Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU) izandako ospitaleratze-tasa nabarmen txikiagoa da uretan jaiotako jaioberrien artean, modu konbentzionaletan jaiotako jaioberrien artean baino (25, 27). <ul style="list-style-type: none"> Reviriego Rodrigo et al. ek (11) egindako azterketan ordea ez da alderik aurkitu ZIU-n sartutako jaioberrien kopuruan.
Uretan izandako erditze-taldeak arrisku txikiagoa dute Apgar < 7ko puntuazioan, lehorreko erditze-taldearekin alderatuta (25).
Ospitaleko egonaldiak laburragoak dira uretako erditze-taldean erditze arrunteko taldean baino (20).

3. Taula: Erditze-prozesua uretan gertatzearen arriskuak.

Erditze-prozesua uretan gertatzearen arriskuak
Zilbor-hesteko urradura. Hori gerta daiteke zilbor-hestearen gainean trakzio gehiegi eragiten bada uretan erditzean. Oro har, urradura ondorio negatibo gutxirekin edo bat ere gabe maneiatu daiteke, berehala ezagutu eta tratatzen bada, odol-galera minimizatzeko. Maneiu eraginkor batekin berehalako erantzunik ez izateak jaioberrien odol-transfusioa eragin dezake (9,13).
Hipertermia. Amaren tenperatura zentrala igotzeak amaren hipertermia eragin dezake, eta horrek fetuaren takikardia eragin dezake. Infekziorik ez badago, eta azterketa eta interbentzio goiztiarra eginda, bainuontzitik irtetea edo ura hoztean konpondu beharko litzateke (9,13).
Perineoko urradura. Uretan erditzea hirugarren eta laugarren mailako perineoko urraduren tasa txikiagoarekin lotzen da; hala ere, uretan erditzeak arinki areagotu dezake trauma perineal ez hain esanguratsua izateko arriskua (9).
Infekzioa. Uretako erditze eta erditze lanei buruzko azterlanetan, ikertzaileek ez dute frogatu ama edo jaioberrientzako infekzio-tasa orokorren igoerarik, erditze-lanaren edozein etapatan urperatu ondoren, hidroterapiako mintzen egoera edozein dela ere. Hala ere, bainuontzia behar bezala garbitzen ez bada edo Pseudomona edo Legionella bezalako organismo ezohikoak baditu, emakumeak edo jaioberriak infekzio atipikoa har dezakete (9,11,13,18,26).
Jaioberrien ura xurgatzea. Bigarren mailako apnea dagoenean (fetuaren hipoxia dela eta) jaioberriek arnastuaren isla bat erakuts dezakete eta horrek suspertzea eta aireztatzea zaildu dezake. Bihotz-maiztasun fetalaren eredu zehaztugabe bat hautematen bada, ebaluazio gehigarri bat egin behar da (9).
Hilkortasuna. Ohiko erditzearekin bezala, emakumea edo jaioberria hiltzeko aukera dago. Ez da jakinarazi ama-heriotzarik, eta erditzean edo erditzean murgiltzean bakarrik egotzi dira fetu-heriotza isolatuak (9, 16,18,21).
Odol galera > 500 ml izatea (11,25).

Azkenik, ez dira desberdintasun esanguratsurik aurkitu odoleko pH-aren mailetan eta uretan jaiotako jaioberrien erreflexu primitiboetan (16).

4.4 Gogobetetzea

Emaitzen arabera, erditze-prozesua uretan egitea emakumeen artean onartutako teknika da eta emakumeen gogobetetze-maila handiagoarekin lotzen da (6,9,11,12,19,21). Era berean, gogobetetzean eragiten duten faktore garrantzitsuenak itxaropen pertsonalak, zaintzaileen laguntza, erditzailearen eta zaintzailearen arteko harremana eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko aukera dira (6).

Gainera, uretan murgiltzean mugimenduarekiko eta pribatutasunarekiko gogobetetzea handitzen denez amaren antsietatea eta fetuaren aurkezpen txarra murrizten dira (28). Beraz, erditze-esperientzia positiboagoak izan dute ohiko erditze-taldearekin alderatuta (26). Halaber, erditzean emakumeei laguntza ematea esku-hartze eraginkorra da erditze-esperientzia positiboagoa sortzeko eta erlaxazioa erabilgarria da erditzearen esperientzia hobetzeko. Aitzitik, urarekin erlaxatzea, ezta ere analgesia epiduralaren erabilera, ez dira erditze-esperientzia negatiboaren arriskua minimizatzeko teknika erabilgarriak (29).

Poder et al. ek (30) egindako azterlanean uretan murgiltzea interesgarria agertu zen emakumeentzat baina, garrantzitsua da arreta egokia bermatzea eta prozeduraren arriskuak eta onurak argi eta garbi dokumentatzea, eskura dagoen ebidentzia-maila handienaren arabera.

5. Eztabaida

Autore gehienak (10-17, 21) bat datoz esatean erditze-prozesuan uretan murgiltzeak mina gutxitzen duela eta erditze gehienak arrisku txikikoak direla. Aitzitik, gutxiengoa duen jatorri etnikoko emakumeek eta maila sozioekonomiko ahulenerako emakumeek uretan erditzeko aukera gutxiago dituzte (26,27).

Minaren maneuari dagokionez, ikerketak kontutan izanik adibidez, Mallen-Perez et al. ek (17) egindako azterketan adierazi zen hidroterapia erabiltzeak mina gutxitzen zuela bai erditze-lanean eta baita ere kanporatzean, uretan erditzea egiten zuten emakumeen kasuan. Hidroterapia aplikatu eta 30 eta 90 minutura, minaren batez bestekoa txikiagoa izan zen hidroterapia-taldean (HT) kontrol-taldean (KT) baino eta kanporatzean, mina txikiagoa izan zen uretan erditu zirenen artean. Gainera, Benavides-Navarrok (16) egindako berrikuspenean laburbildu zen Taipei hiriko ospitale bateko amatasun-gelan egindako ikerketa bat, bertan dilatazio-fasean hidroterapia erabili zuten emakumeek EVAren (Minaren Ikusmen-Eskala Analogikoa) puntuazio nabarmen baxuagoak zituzten. Bestalde, azpimarratu behar da, badaudela ikerketak Czech et al. ek (6) adierazi

bezala, uretan murgiltzean egindako lanak ez zuen zerikusirik minaren intentsitatearen murrizketarekin.

Horrez gain, analgesia eskariari dagokionez, uretako erditzeek epiduralen erabilera murrizten dute erditze-lanean (2,16,18). Ez hori bakarrik, Carlsson et al. (10) eta Tara et al. ek (22) ere bere ikerketetan aipatu zuten emakumeek ez zutela minaren tratamendu farmakologikorik behar izan, uraren ondorio onuragarriengatik. Aztertu zen, uretan erditze-prozesua gertatzeak amaren mina murriztu zezakeela, kontrako gertaera baten arriskua handitu gabe eta epiduralak eta opioideek sartutako arriskurik gabe (21). Hori horrela izanda ere, eta ospitaleetan analgesiako erabileraren murrizketa frogatu bada ere, komunitatean oinarritutako uretako erditzeek nahitaez izango lituzkete analgesikoen modalitate horiek eskuratzeko erronkak. Horrez gain, emaitza onak aurkitu dira analgesikoen erabilera murriztean, erlaxazioa areagotuz eta emakumeek uretan erditzearen bidez kontrol pertsonal handiagoa izan dezaten ahalbidetuz (18) baina, hidroterapia erabilgarriagotzat jotzen da lehen erditze-aldiaren fase berantiarrean. Izan ere, metodo horrek dilatazioaldi berantiarretan analgesia epiduralaren erabilera txikiagoa eragiten du dilatazio-aldi goiztiarretan erabiltzen duten erditzaileekin alderatuta (19).

Iraupenari dagokionez, American Academy of Pediatrics Committee on Fetus and Newborn (13) eta Zhang et al. ek (25) egindako ikerketen arabera erditze-lanaren lehen etapan uretan murgiltzea erditze-lanaren iraupena murriztearekin lotuta egon daiteke. Hala ere, Tara et al. ek (22) egindako lanean erditze-lanaren lehenengo etaparen batez besteko iraupenari, erditze-lanaren bigarren etapari eta erditze-lanaren hirugarren etapari dagokienez, ez ziren desberdinak izan bi taldeen artean.

Segurtasunari erreparatuz Cuartero et al. ek (2) egindako ikerketan deskribatu zen ez zegoela informazio nahikorik urperatzea babesteko egozpen fasean. Gainera, American Academy of Pediatrics Committee on Fetus and Newbornk (13) egindako ikerketaren arabera ez dago ebidentzia nahikorik erditzeko lanaren lehen etapan uretan murgiltzeak jaiotza-inguruko emaitzak hobetzen dituenik. Beraz, ez da ezarri erditzeko lanaren bigarren etapan uretan murgiltzearen segurtasuna eta eraginkortasuna, eta erditzeko lanaren bigarren etapan uretan murgiltzea ez da lotu amarentzat edo fetuarentzat onurekin. Arrazoi horiengatik, kanporatze-fasean uretan murgiltzea prozedura esperimentaltzat hartu beharko litzateke saiakuntza kliniko baten testuinguruan (13).

Horrez gain, ikerketa ezberdinetan desberdintasunak aurkitu dira, erditze-prozesuan uretan murgilduta egoteak dituen arriskuen inguruan: erditze-prozesua uretan gertatzearen onurei eta arriskuei dagokionez alde batetik, Zhang et al. en (25) ikerlanean ur-hornidurari dagokionez, distozia-tasa nabarmen murriztu zen. Hala ere, Burns-k (21) eta Reviriego Rodrigo et al. ek (11) egindako azterketan sorbalden distozian ez zen alderik egon uretan murgiltzearen eta arreta estandarraren artean. Beste alde batetik, nahiz eta uretan erditzeak hirugarren eta laugarren mailako urradura perinealak izateko probabilitatea murriztea eragin (9, 25, 26). American Association Of Birth Centers, American College of Nurse-Midwives, Midwives Alliance North America, Midwives Alliance eta National Association of Certified Professional Midwives organizazioak onartutako eta J Midwifery Womens Health aldizkarian argitaratutako gidak (9) dioenez uretan erditzeak arinki areagotu dezake trauma perineala izateko arriskua. Gainera, Reviriego Rodrigo et al. ek (11) egindako ikerketan, 8 kasu-txosten identifikatu ziren, nahiz eta bakar batek ematen zituen erditzearen ondoren zilbor-hestea haustearekin bat zetozen datu klinikoak. Garrantzitsua izan zen, uretan erditzearen praktikan aldaketa bat markatu zuelako, erditzearen ondoren kordioa osorik dagoela berehala berrestea gomendatuz (11). Horrez gain, uretako erditze eta erditze lanei buruzko azterlanetan, ez zen frogatu ama-edo jaioberrientzako infekzio-tasa orokorren igoerarik, erditze-lanaren edozein etapatan urperatu ondoren. Hala ere beste ikerketa batzuen arabera emakumearen infekzio arriskua egon zitekeen higiene eta asepsia neurri ezegokiek (9,11,13,18,26).

pHari dagokionez, Hautala et al. ek (20) arteriaren pHa eta zilbor-hestearen zaina aztertu zituen, eta erditze-taldean uretan kontrol-taldean baino handiagoa izan zen. Benavides-Navarrok (16) egindako berrikuspenean adierazi zen ordea, ez zegoela desberdintasun esanguratsurik aurkitu odoleko pHaren mailetan.

Azkenik, gogobeteatzari erreparatuz egileak bat datoz esatean uretan erditzeak emakumeen gogobetetzea handitzen duela (6,9,12,19,21). Poder et al. ek (30) egindako azterlanean uretan murgiltzea interesgarria agertu zen arren, garrantzitsua izan zen arreta egokia bermatzea eta prozeduraren arriskuak eta onurak argi eta garbi dokumentatzea, eskura dagoen ebidentzia-maila handienaren arabera.

6. Ondorioak

Uretan murgiltzean estresa gutxitzen da, uraren tenperatura doitzeko ahalmena dagoelako eta gainera flotagarritasun efektua dela eta mugimenduak egiteko erraztasuna lortzen delako. Beraz, estresa gutxitzean emakumearen egoera kontrolatzeko ahalmena handiagotzen da eta minaren murrizketa gertatzen da, eskualdeko analgesiaren erabilera gutxituz eta erditze fisiologikoa bermatuz. Hori dela eta, tratamendu farmakologikoak murrizten dira eta uretan murgiltzeak gogobetetze handiagoa ematen dio emakume haurdunari. Hortaz, ondorioztatu daiteke uretan erditzean minaren pertzepzioa txikitzen dela, kontrako gertaera baten arriskua handitu gabe eta epiduralak eta opioideek sartutako arriskurik gabe. Era berean, erditze-mina subjektiboa denez, neurri handi batean aldatu egiten daiteke haurdun dagoen emakume batetik bestera; beraz, mina arintzea emakumearen ezaugarrien araberakoa izango da, eta emakumeak erabaki beharko luke zer analgesia mota behar duen. Dilatazio fasearekin alderatuz, erditze prozesuaren hirugarren etapan uretan murgiltzearen inguruko ebidentzia mugatua badago ere, minaren murrizketa gertatzen dela eta erditzearekiko gogobetetzea handia dela adierazi da. Aitzitik, egozpen fasean eta ume-ondokoa botatzean uraren erabileraren segurtasuna zalantzan dagoenez etorkizunean gai honen inguruan gehiago aztertu beharko litzateke. Era berean, gaur egun limitazioak aurkitu dira bereziki, etapa hauetan informazio mugatua eta urria aurkitu delako eta ikerketa gehienak dilatazio aldian zentratzen direlako.

7. Bibliografía

1. Clínica Universidad de Navarra [Internet]. Iruñea; 2022 [konsulta, 2022/12/30]. Definiciones Diccionario médico Parto; [1 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.cun.es/diccionario-medico/terminos/parto>
2. Cuartero Funes MDM, Jumilla Burugorria A, Ventura Tazueco E, Ondiviela Garcés PC, Bueicheku Buila RD. Alivio del dolor en el parto: Revisión bibliográfica. RSI [Internet]. 2021 [konsulta, 2022/11/30];1(9):87. Erabilgarri: <https://revistasanitariadeinvestigacion.com/alivio-del-dolor-en-el-parto-revision-bibliografica/>
3. Osasunaren Munduko Erakundea (OME) [Internet]. Geneva; 2022 [konsulta, 2022/12/30]. Las medidas de apoyo individualizadas son fundamentales para una experiencia positiva del parto, según la OMS; [2 pantaila ggb]. Erabilgarri: <https://www.who.int/es/news/item/15-02-2018-individualized-supportive-care-key-to-positive-childbirth-experience-says-who#:~:text=En%20la%20nueva%20directriz%20de,durar%20m%C3%A1s%20de%2010%20horas>
4. Osasunaren Munduko Erakundea (OME). Recomendaciones de la OMS Para los cuidados durante el parto, para una experiencia de parto positiva Transformar la atención a mujeres y neonatos para mejorar su salud y bienestar [praktika klinikorako gida interneten]. Geneva; 2018. Erabilgarri: <https://www.who.int/es/publications/i/item/WHO-RHR-18.12>
5. Espainiako Gobernua. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa. Implementación del uso del agua durante el proceso de parto en el Hospital de La Plana [praktika klinikorako gida interneten]. Valentzia; 2019. Erabilgarri: https://www.sanidad.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/BBPP_PARTO_2019.htm
6. Czech I, Fuchs P, Fuchs A, Lorek M, Tobolska-Lorek D, Drosdzol-Cop A et al. Pharmacological and Non-Pharmacological Methods of Labour Pain Relief Establishment of Effectiveness and Comparison. Int J Environ Res Public Health. 2018;15(12):2792. doi: 10.3390/ijerph15122792.

7. Feeley C, Cooper M, Burns E. A systematic meta-thematic synthesis to examine the views and experiences of women following water immersion during labour and waterbirth. *J Adv Nurs*. 2021;77(7):2942-2956. doi: 10.1111/jan.14720.
8. Cluett ER, Burns E, Cuthbert A. Immersion in water during labour and birth. *Cochrane Database Syst Rev*. 2018;5(5):CD000111. doi: 10.1002/14651858.CD000111
9. A Model Practice Template for Hydrotherapy in Labor and Birth. *J Midwifery Womens Health*. 2017;62(1):120-126. doi: 10.1111/jmwh.12587.
10. Carlsson T, Ulfssdottir H. Waterbirth in low-risk pregnancy: An exploration of women's experiences. *J Adv Nurs*. 2020;76(5):1221-1231. doi: 10.1111/jan.14336.
11. Reviriego Rodrigo E, Ibarгойen-Roteta N, Carreguί Vilar S, Mediavilla Serrano L, Montero Carcaboso S, Ares Mateos G et al. Inmersi3n en agua durante el parto[Internet]. Ministerio de Sanidad. Servicio de Evaluaci3n de Tecnologίas Sanitarias del Paίs Vasco. Informes de Evaluaci3n de Tecnologίas Sanitarias: OSTEBA; 2022[konsulta,2023/01/31].Erabilgarri:<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=878232>
12. Nikodem VC, Edwards SE, Krzyzanski AM, Berghella V, Hofmeyr GJ. Immersion in water during the second stage of labor: a randomized controlled trial. *Am J Obstet Gynecol MFM*. 2022;4(6):100721. doi: 10.1016/j.ajogmf.2022.100721
13. American Academy of Pediatrics Committee on Fetus and Newborn; The American College of Obstetricians and Gynecologists Committee on Obstetric Practice. Immersion in water during labor and delivery. *Pediatrics*. 2014;133(4):758-61. doi: 10.1542/peds.2013-3794
14. Martinez Galiano JM. Labour Pain Management with Water Immersion. *West Indian Med J*. 2018; 67 (1): 46.doi: 10.7727/wimj.2015.407
15. Rhode MA, Murdock EL, Linares CZ, Brou L. A Descriptive Study of Maternal Choices for Labor Pain Relief. *J Perinat Neonatal Nurs*. 2022;36(3):274-283. doi: 10.1097/JPN.0000000000000667.
16. Benavides-Navarro A. Beneficios de la hidroterapia en el trabajo de parto. Estudio de revisi3n. *MUSAS*. 2021; 5 (1):22-46. doi: 10.1344/musas2020.vol5.num1.2

17. Mallen-Perez L, Roé-Justiniano MT, Colomé Ochoa N, Ferre Colomat A, Palacio M, Terré-Rull C. Use of hydrotherapy during labour: Assessment of pain, use of analgesia and neonatal safety. *Enferm Clin.*2018;28(5):309-315. doi: 10.1016/j.enfcli.2017.10.004.
